



Iñaki Sánchez Guu Euskal Gobernuako Justizia kontseilariordea

“Justizia Administrazioak kalitatezko zerbitzu publiko bat eman dezala eskatzen ari gara”

Iñaki Sánchez Guu Zuzenbidean lizentziatu zen Zaragozan, eta idazkari judiziala da 1981z geroztik. Azken hamar urteotan Eusko Jaurlaritzan Justizia arduradunen goi-aholkularitza lanetan jardun du, harik eta 1994ean Aginte Judizialeko Kontseilu Orokorreko letratu izendatu zuten arte. 1997ko maiatzaz geroztik, Justizia kontseilariordea da.

1.

Zein da Justizia kontseilariorde baten eginkizuna? Nolakoa izan ohi da zure lanegun bat?

Gobernuak eskaintzen dituen zerbitzu desberdinak zuzentzea dagokit niri, Auzitegiek egunetik egunera beren ateak zabaltzean gero eta zerbitzu hobea eman diezaieten hiritarrei, beraien artean nahiz Administrazioen batekin dituzten gatazkak konpontzeko orduan. Era berean, Justiziaren beste alderdi osagarri batzuk garatzea dagokit. Kontseilari ohi batek zioen bezala, Justizia Administrazioa Justiziarekin nahastea, kirolfanoak osasunarekin nahastea da. Argi dago epaile, eraikin eta tresnarik onenak eduki arren (informatika, esate baterako), hiritarrek artapen egokirik ez jasoz gero, ez genukeela Justizia balore hori beteko. Hain zuzen ere, horregatik bultzatzen ditugu gure hiritarren artean Justizia Administrazioaren eta bere funtzionamenduaren zabaltze politikak, eta babesten zenbait talde (biktimak zerbitzu bereziekin, adibidez), oso labur esanda.

2.

Euskalduntze prozeduran sartuz, eta historia pixka bat eginez, nola bizitu duzu

hau guztia, kontuan izanik lehen aldarrikapenak sortu zirenerako zu jada hemen zeundela? Zein politika jarraitu du Sailordetza honek Justizia Administrazioaren euskalduntze arloan?

Gabezia garrantzitsu batetik abiatzen gara hemen, botere judiziala Estatuko botere bateratu bakarra delako; alegia, Euskal Herrian botere exekutibo bat (Eusko Jaurlaritza) eta botere legegile bat (Eusko Legebiltzarra) dauzkagu, baina botere judiziala bakarra da Estatu guztirako, Konstituzioak dioenari jarraiki. Zentraltasun horren ondorioz, botere judizialari laguntzeko dauden funtzionarioek Estatu mailako funtzionario gorputz izaera izan dute, eta duela bi urtera arte (96. urtea) ez da transferentzia hori eman. Sarbide eta hautaketa faseetan beste hizkuntza ofizialaren ezagutza aintzat hartzen ez zaion pertsonal bakarra da gaur egun; baina ez gure Erkidego Autonomoan bakarrik, baizik eta hizkuntza koofizialtasuna dagoen erkidego guztietan.

Hortaz, hasieratik bertatik daukagu gabezia: Estatuko kidegoa denez, Estatu guztirako berdina den estatutu juridiko bat dauka. Horregatik, 1988. urtean Justiziako lehen transferentziak jaso genituen geroztik (Auzitegiekako bitarteko material eta ekonomikoak), gu beti agertu gara Estatuko kidegoen aurka. Pozgarria iruditu zaigu Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrak espainiar Estatuan Justiziaren Liburu Zuria egin duenean, gure nahi zahar hori ere bertan jaso izatea, Estatuko kidego

izaera ezabatzea eskatuz. Logika hutsa da gainera, ez aldarrikapen autonomiko huts bat, zeren eta arazoak hobekien ezagutzen diren lekua zerbitzua eskaini behar denekoa da, eta erkidego autonomo horretako hiritarren beharrak hobekien ezagutzen dituen.

Euskalduntze prozedurari dagokionez, 1987an lehen transferentziak jasotzen hasi ginenerako, euskarazko klaseak ematen ari ginen jada, borondatezkoak ziren arren. Funtzionarioen nolabaiteko euskalduntze prozesu bat egon da, hortaz. Orain bertan, pertsonalaren %30a baino gehiago lana euskaraz egiteko gai dela esan dezakegu (nahiz eta 96. urteko apirilaz geroztik bakarrik daukagun, eta hala ere zenbait mugekin). Ez daukagu eskuduntzarik epaile, fiskal eta idazkari judizialen gain; Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin trebakuntza hitzarmen bat izan da hor (Estatuan bertan ere aitzindaria izan dena), eta trebakuntza horretako zati bat bezala, euskararen gaia dago. Gainera, euskarari buruzko hitzarmen zehatz bat proposatzen diegu orain. Beraz, trebakuntza eskaintza zabala dugu: lehen aldiz epaileak liberatzeko aukera ireki dugu (batez ere dagoeneko nahiko maila ona daukatenei azken bultzada emateko); gaitasun pasiboa (hau da, epaiketa batean itzultzaileen beharrik gabe ulertzeko gaitasuna) bezalako beste ekintza mota batzuk garatzen hasiko gara, eta orain bertan hasten dugu zerbitzua euskaraz eskain dezaketen Epaitegien esperientzia, horretarako trebakuntza berezia, laguntza eta animoa ematen diegularik. Zehatz-mehatz esateko, hauek izango dira: Bilbon Lehen Instantziako Epaitegi bat eta Instrukzioko beste bat, Durangoko Epaitegiak, Bergarako Epaitegiak, eta Donostiako Entzutegi Probintzialeko Hirugarren Sekzioa. Beraz, paisaia aldatzen ari dela soma daiteke. Ezin da zerotik ehunera pasa; horrelakoetan ohikoena ezer ez egitea izaten da; horregatik, nahiko aurreratuta gindoazen gu.

Pertsonalaren euskalduntzearen arloan, iaz konpromezu garrantzitsu batera heldu ginen zentral sindikalekin; lan baldintzei buruzko akordioaren zati garrantzitsu bat euskararen ingurukoa zen. Orduantxe adostu genuen elkarrekin normalizazio plan bat egitea; eta plan hori negoziatu eta onartu bitartean, organu judizialeko zenbait lanpostuk hizkuntza eskakizunen bat eduki beharra onartuko zutela esan zuten. Zer gertatzen zitzaigun? Ba pertsonalaren hein handi bat euskaldundua geneukala, baina hizkuntza eskakizunik ez zegoenez, denak organu zehatzetan kontzentratuta egotea gerta zitekeen, eta gune euskaldun edota ia guztiz euskaldunetan ez egotea zerbitzua euskaraz eman ahal izateko moduan eskakizuna zeukan pertsonalik. Orain gainera erori zaigun harria Gobernu zentralak plantilen inguruan tarteratu digun auzia izan da, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna daukaten lanpostuak ezartzea eragotziz.

3.

Transferitu ez den pertsonalari gagozkiola (epaile, fiskal eta idazkari judizialak), inolako jarrera aldaketarik eman al da eurengan?

Nik baietz uste dut. Hasteko, eskaintza zabaltu egin da; alegia, kalitatezko zerbitzu publiko bat eman dezatela eskatzen ari gara, hiritarrari erantzuna epe laburrean eman diezaiotela; ahazkotasun, inmediazio eta prozedurazko antzeko printzipioak aplika daitezela. Zoritxarrez, euskara ez da katalana edo galiziera. Beste erkidego autonomo batzuek bertako hizkuntzen ezagutzari buruzko gutxieneko eskaeren inguruan egin dituzten txostenak ikusten aritu naiz, eta ez dago inolako proportziorik hemengo epaile batek zerbitzua euskaraz emateko sartu behar dituen orduen eta adibidez Valentzian, Katalunian edota Galizian behar dituztenen artean. Klaseetara egunero joan beharra dago, ordu t'erdiz gutxienez; hau ez da beste inolako hizkuntzekin gertatzen. Eta denborari dagokionez, horra: 3. hizkuntza eskakizuna lortzeko, 4 urte behar dira gutxi gora-behera; gaitasun pasiboa lortzeko, urte bete edo bat eta erdi aski lirakeela uste dugu. Kontua da euskararen ezagutza meritu gisa baloratzeko, 3. hizkuntza eskakizuna edota EGA edukitzea eskatzen dela, eta hau ez da beste inolako egoerarekin alderagarria¹. Beraz, eskaintza eta forma berriak egoteko aukera zabaltu egin denez, posible da jauzia ematea. Hala gertatzen da Euskal Herriko Administrazioetan, liberazioetarako eta bost orduko ikastaro trinkoetarako aukera dago eta, orain arte ez bezala.

4.

Zein da plantilarekin (hau da, transferitutako eskuduntzarekin) dagoen arazoa? Nola ikusten da hauen etorkizuna?

Niri, egia esan, eromena iruditzen zait. Ez naiz galdera horri arrazionalki erantzuteko gai. Burugabea nintzateke modernizazio prozedura batean sartuta egonik, erkidego elebidun batean ari naizela ahaztuko banu, eta inolako erreserbarik egingo ez banu, Funtzionarioen Erregelamenduak berak dioenean plantila izango dela lanpostuko funtsezko ukanbeharrak zehaztuko dituen. Kalera irten eta jendeari galdetuko bagenio ea arrazionala den erkidego elebidun batean lanposturen batek (berriro diot: lanposturen batek) ukanbehar bezala euskararen ezagutzaren bat edukitzea, nik uste dut %100ak guztiz logikoa dela erantzungo lukeela. Beno, ba Justizia Ministeritzari ez zaio logikoa

1. Elkarriketa hau argitara ematen denean, meritu gisara balioesteko aski izango da 2. Hizkuntza Eskakizuna izatea, Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorraren Osoko Bilkuraren erabakiz.



iruditzen. Bi gai helegin dituzte: bata, ordainketen arloan lortu genuen akordioa, non Erkidego Autonomo honetan eta Estatuan lehen aldiz, ukanbehar batzuk bete behar baitiren gehigarri bat jasotzeko (hala nola puntualitatea, fitxatzean iruzurrik ez egitea, ematen diren jarrabideen arabera erabiltzea informatika...), Administrazioaren eta funtzionarioen arteko konpromezuaren bitartez hiritarrei zerbitzu hobea eman nahiean. Horrelakorik egiten genuen lehen aldia zen hau, eta helegin egin dute.

Dena den, ez dut uste benetako helegitea (ordainketei dagokiena) gehiegi axola zitzaienik; axola zaiena da guk XXI. gizaldira begiratzeko dugula (zentral sindikalek ahalegin handia egin eta XXI. mendera begira hartu dute konpromezua, hain zuzen ere); eta bitartean Justizia Ministeritza XIX. mendera begira dago. Zioak politikoak dira. Guretzat botere judiziala Estatuko botere bat da, baina baita zerbitzu publiko bat ere. Ministro andreaientzat (epailea berau), oster, botere judiziala boterea baino ez da; ez du zerbitzuaz entzun ere egin nahi. Eta hori da menpekoea hiritarrarengandik desberdintzen duena.

5.

Epaile euskaldunen zirkuituaren inguruan, zenbaitek Konstituzioaren aurkakoa dela diote, zirkuitu arruntaren botere judizial alternatibo bat litzatekeelako. Zer deritzozu?

Hasiera batean planteatu zen bezala, egia da inkonstituzionala litzatekeela. Baina ez dugu hor gelditu behar, ez dago ideia batekin zertan itsutu behar. Gero eta funtzionario eta epaile euskaldun gehiago lortzen goazen heinean salba daiteke ideia hori, jada ez litzatekeelako bakarria izango. Orain

arazoa da bakar bat izanik, eta lege guztiak alboratuz, gaia zein epailek ebatziko duen aurrez finkatzen dela. Batzuk izanez gero, aldiz, banaketarako bide normala eta espezializatua izan genitzake, zirkuituarekin sortu nahi zen egoeraren antzekoa. Horregatik diot ez dugula itsutu behar. Prestatzen ari garen esperientziatarako, zirkuitu hitza erabil dezakegu adibidez: Bergarako Epaitegiak zerbitzua euskaraz emateko moduan egongo dira, eta Epaitegi horietako apelazioak Donostiako Hirugarren Sekziora iritsiko dira, bertan ere emango delarik zerbitzu hori. Hara hor zirkuitua, zirkuitu izan gabe.

Batzuetan, beharbada, hasierako ideia edota termino zehatz batzuk mantendu nahi izateagatik, oinarritzko ikusmoldea salbatzen duen beste bat oharkabea bazter dezakegu. Zer da lortu nahi duguna? Hiritar euskaldunak Justizia Administrazioaren aurrean euskaraz hitz egin ahal izatea. Gauza zehatz batzuk defendatzearen, xede berberari erantzuten dioten beste ideiei oztopo gaindiezinak jartzen dizkiegu batzuetan.

6.

Nola doa materialaren kontua (euskarazko erregistroak, formularioak...)?

Nahiko denbora gutxian asko aurreratu dugu arlo horretan. Gipuzkoako Abokatu Elkargoarekin batera (zehazkiago esanda, Elkargoko Euskara Batzordearekin), formulario asko euskaraz argitaratu ditugu; uda baino lehen, prozedura zibilei buruzko mordo eder bat kaleratu genuen, eta hemendik gutxira beste zati baten argitalpenari ekingo zaio. IVAP-HAEEri esker, ordenagailuetan kargatzen ari dira inprimakirik erabilienak: zitazioak,

jakinarazpenak... (duela hilabete gutxi batzuk, kargatuta zegoen gehien erabiltzen denaren hein handi bat, Lehen Instantzia eta Instrukzioa, alegia); laster kontentzioso-administratibo eta lan arlokoak amaituko dituzte.

Baina bi gauza hartu behar dira kontuan. Bat: 14.000 inprimaki inguruz mintzo garela, eta jakin badakigu hori ezin dela gauetik egunera egin, nahiz eta dagoeneko asko egin eta kargatu den sistema informatikoan. Arazo bat egon zen hor; izan ere, termino juridikoen normalizaziorako batzorde bat dago (non unibertsitate, UZEI, IVAP-HAEE etab.en laguntza jasotzen dugun), eta oso lan garrantzitsua egiten ari da, baina kostata. Arazoa ez da Justizia Administrazioarena soilik izan, komunitate juridikoarena ere izan da (abokatuena, unibertsitateena, Zuzenbideko profesionalena...), hor euskara normalizatzeke baitago, eta sarritan oso eztabaida sutsuak pizten dira terminoen inguruan; horrek guztiak ere atzeratu egiten du. Bada beste elementu bat, zeren eta ordenagailua kargatuta egon arren, erosotasunagatik, errutinagatik (berrikuntza prozesuen etsairik handiena), dinamizatzaile baten faltagatik, ez da euskarara jotzen. Hala ere, paisaia aldatzen ari dela uste dut.

7.

Izango al da dinamizatzaileak Epaitegietan, Katalunian bezala?

Asmoa hori da. Horretan pentsatuz sartu genuen plantiletan Epaitegietarako pertsona baten hizkuntza eskakizuna, baina heleginda dago. Beste bide honetatik aurrera egiten jarraituko dugulakoan gaude. Erkidego Autonomoaren nahiz funtzionarioen

erradiografiak badauzkagunez gero, pertsonalaren %60-70a dagoen lekuetan piskanaka erabiltzera bultzatu nahi ditugu, olio orbana bezala.

8.

Zein iritzi duzu abokatu euskaldunen sindikatuaren aldarrikapenaren inguruan, epaitegietan itzulpenak auzipetuaren defentsa eskubidea urratzen duela eta?

Egoera ideiala, itzultzaileen beharrik ez egotea litzateke. Baina itzultzailearen figura guztiz onartua dago; ez Estatu espainiarreko araudian bakarrik, baizik eta baita nazioarteko egoera eta auzitegien funtzionamenduan ere. Iruditzen zait sindikatuak ikusi duela ez zela asmoen adierazpen soil bat, benetako pausuak eman direla. Orain lasaiagoa da egoera, baina nire ustez sindikatua beti lerroaz gairik pausu bat ematen ibili da. Lehenengo, itzultzaileak ez zegoela zioten (eta gai hau ez da berez orainoa; hemerrotekari gainbegirada bat botaz gero, gai hau jada 80ko hamarkadan bazebilela ikus daiteke), orduan, itzultzaileak jarri ziren; gero, nahikoak ez zirela, ba gehiago jarri ziren; ondoren, ez zutela ongi itzultzen, hortaz (95. urteaz geroztik bereziki) izugarritzko ahaleginak egin genituen zuzenbide prozesalean, termino juridikoetan eta bat-bateko itzulpenean trebatzeko; eta hurrengo pausua, itzulpenak giza eskubideak urratzen zituela esatea izan zen. Ongi da, saia gaitzen panorama aldatzen, ahalik eta ahaleginik handiena egin dezagun zerbitzua euskaraz emateko; baina ez dut uste horrek giza eskubideak urratzeagatik inolako erreklamaziorik jaso duen epailek dagoenik munduan.



9.

Orain bertan dugun egoera abiapuntutzat hartuz, non Euskal Autonomia Erkidegoan epaileen %8a besterik ez den euskalduna, nolakoa beharko luke izan hizkuntzaren normalizazioak Epaitegietan?

Egoera ideiala, euskara guztiek jakitea litzateke. Portzentaia denbora gutxian lor dezakegula iruditzen zait. Banaketa geografikoan dago arazoa: normalizazio plan bat egin ezean, eta lekualdaketa lehiaketak dauden bezala egonda, gerta daiteke Errioxako Bake Epaitegietan euskalduna den pertsonalaren %70a egotea, eta Tolosan, aldiz, bat bera ere ez. Arriskutsua izan ohi da portzentaia ematea, baina nik uste dut oso epe laburrean EAEko pertsonalaren %40a zerbitzua euskaraz emateko, aurreinprimakiak betetzen jakiteko eta euskaraz erraztasunez hitz egiteko prest egon daitekeela; bigarren hizkuntza eskakizuna litzatekeen mailarekin.

Hala ere, pertsonal horren banaketa geografikoa ez da ideiala izango, guretzat ideiala izango bailitzateke padrioren arabera %30-40 inguru euskalduna den lekuetan zerbitzua euskaraz eman ahal izatea, edota Epaitegietako pertsonalaren erdia jada gaitua egotea. Arazoa sortzen da populazioaren beharra funtzionarioen banaketa geografikoarekin bat ez datorrelako. Hasiera batean ez daukagu inolako arazorik Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrearekin, eta Auzitegi Goreneko Gobernu aretoak akordioaren aldeko txostena eman du Justiziako pertsonalaren inguruan.

Oposaketak gainditutakoan, ez zara zuzenean epaile egiten; lehenengo eskola judizialean sartu behar duzu, bi urtez trebatu, eta orduan bai joan zaitezkeela titular gisa epaitegi batera. Ba aurten, eta lehen aldiz, euskarazko irakasle bat dago Bartzelonako eskola judizialean. Eta aldaketa bat proposatu diogu Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrak erkidego autonomoetan hizkuntza koofizialen balioespenari buruz onartu berri duen Erregelamendu bati, eta (hasiera batean behintzat) onartzekotan daude. Ez dakidana da ea Kontseiluak aztertuko ote duen euskararen ezagutza meritu gisa hartzea lehen destinoan, balantza piska bat aldatzen hasteko.

10.

Ba al dago trebakuntza mailan euskaldunen epailetzak sustatzeko inolako pizgarririk?

Bai. Aurten, beka eman edo ez erabakitzeko orduan erabakiorra dena euskararen balioespena da, espediente akademikoarekin batera. Lehen, mailakatua zegoen euskararen balioespena;

adibidez, 2. hizkuntza eskakizunaren parekoa, hainbeste; EGA, hainbeste; 4. hizkuntza eskakizuna, hainbeste... eta mugatua zen gainera, puntuaketaren %10-15 inguru; orain, aldiz, guztiaren %25a.

11.

Fiskaltzari buruzko eskuduntza aldarrikatu da kontseilaritza honetatik...

Nire ustez, orain bertan badugu Ministeritza Fiskala baino gai garrantzitsuagorik, ez baitut uste Konstituzioa aldatzeko adina adostasun dagoenik. Ministeritza Fiskalarekin borroka historiko bat egon da, 96. urtean irabazi genuena; izan ere, 1988an (Justizia Administrazioako bitarteko material eta ekonomikoen transferentzia egin zenean), fiskalak kanpo utzi zituzten, hori Ministeritza Fiskalaren batasunaren aurkakoa zela argudiatuz. Orduan, zera genion guk: hortaz, epaileari (independienteetan independente den organu eta botereari) mahaia jartzeak ez dio bere independentziari eragiten, eta Ministeritza Fiskalari jartzeak, aldiz, bai? Zentzugabea da. Inauguratu genuen, bai, ongi hornitua zegoen Justizia jauregiaren bat, baina eraikineko zati bat erabat hutsa egonik. Azkenean, 1996an, transferentzia egin zen.

Amaitzeaz dago legegintzaldia, eta hemen egongo denak, aurretik lau urte dituela (Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrearekin batera joanez gainera) oso erronka polita izango du: nola egokitu botere judiziala Autonomien Estatuari. Jada egokitu da hein batean (bitarteko materialetan, doaneko justizian, Abokatuen eta Prokuradoreen Elkargoekiko harremanetan, pertsonal laguntzaileko zati batean...), baina oso zati garrantzitsu bat falta da: eremua zein den zehaztea; eremu horren barnean idazkari judiziala non kokatzen den ikustea; idazkari judizialaren berdefinizioa funtzio jurisdikzionalaren egikaritzaren aldetik doan (hau da, epaileenetik; orduan ziur aski ez luke ez Erkidego Autonomoan, ezta Justizia Ministeritzan ere egon beharko, Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrean baizik), edota, aitzitik, azpimarratzen dena bestelakoa den: bere gerente, pertsonalaren kudeatzaile edo idazkari papera; kasu honetan, nik uste dut Erkidego Autonomo honek idazkari judizialen gaineko transferentzia eskatu beharko lukeela. Eztabaidagai da, baita, Hizkuntza normalizazioaz, hizkuntza eskakizunez eta Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden izaera nazionala ezabatzeari buruz mintzo den Kontseiluaren Liburu Zuriaren exekuzioa.

Ikuspuntu pragmatiko eta errealista batetik, gutxi gora-behera lau urteren buruan lortuko dugun erronka garrantzitsu baten aurrean gaudelakoan nago. Konstituzioa aldatu beharraren inguruko eztabaidatan murgiltzeak (oso interesgarria izan arren) ez gintuzke inora eramango.

12.

Egoera pribilegiatuan zaude pil-pilean dagoen gai bati buruzko iritzia emateko: Botere Judizialaren eta Exekutiboaren arteko harremanen eredua.

Beste kontu bat aipatu beharra dago. Oro har, botere exekutiboa beti botere judizialari aurrejarrita edota presionatu nahiean ikusten dugu; baina oraingoan egoera oso bestelakoa da. EAEn aparta da botere exekutibo euskaldunak botere judizialarekin daukan harremana. Bada botere judizialean eraginik izateko tentazioa daukan botere exekutiborik, edota botere exekutiboaren zatirik, edota zenbait pertsona; botere exekutiboa gauzatu nahi duten zenbait epaile dauden bezalaxe. Tamalgarria iruditzen zait egunotakoa². Giza alderditik nahi adina uler dezaket egoera hau; Estatuko partidurik nagusienetarikoa denaren aldetik, oster, ulergaitza egiten zait. Egin beharko luketena da bertan gelditu, isildu eta borroka beste bideren batetik eraman. Botere judizialarekin dauden eztabaidak prozesuan bertan egin behar dira, eta ebazpen judizialekiko ezadostasuna, helegiteen bidez ematen da aditzera. Hori da Zuzenbidezko Estatuaren jokoa, eta gainerako guztia lekuz kanpo dago.

13.

Zer nolako etorkizuna ikusten diozu euskara hutsean egindako aldizkari juridiko bati?

Etorkizuna duela uste dut. Ziur nago oso gaizki pasatzen arituko zaretela, arlo honetan aitzindari izan nahi izateagatik guri gertatzen zaigun bezala, ez gaudelako jaso dugun egoerarekin ados. Baina argi dago gure gizartearen etorkizuna bi hizkuntzen elkarbizitza parekatu baterantz bideratua dagoela. Arlo juridikoan askoz ere lehenagotik behar zela uste dut. Eta zuek hain gazte izatea ez da Justizia Administrazioa normalizatu gabe dagoenaren adierazgarri, baizik eta arlo juridikoan asko bizkortu beharra daukagunarena. Bikaina iruditzen zait zuen ekarpena.

2. Auzitegi Gorenak 1998ko uztailaren 29an emandako Epaiaren inguruan Estatuko alderdi politiko batek egindako adierazpenez ari da.